Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Elvira Iturria Madariaga

Igantzi, Nafarroa (1926-2017)

Aurkibidea

Biografia

Igantzin sortu zen, Goienetxean. Guraso biak Igantzikoak zituen.

Zintak

IGA-004

- **Proiektua**: Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lakar Iraizoz, Maite
- **Data**: 2006-12-06
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Emalea**: Arburua Etxeberria, Patri

IGA-005

- **Proiektua**: Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lakar Iraizoz, Maite
- **Data**: 2006-12-06
- **Iraupena**: 57 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Emalea**: Arburua Etxeberria, Patri

Pasarteak

1. Zer jaten zuten

- **Erref**: IGA-004/001
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Bertzeak bertze, ilarra, bakailua eta patata, arrautza frijituak, garbantzuak, oiloak (igandeetan), etxeko sagarrak, flana edo arroz-esnea jaten zituzten. Arratsean, berriz, gaztain denboran, familia osoa biltzen zen sutondoan eta gaztainak erretzen zituzten, amak arrosarioa errezatzen zuen bitartean. Gaztainen ondoren, esnea opilarekin jaten zuten.

2. Aita hil zitzaien

- **Erref**: IGA-004/002
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:01:13. **Bukatu**: 00:02:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Ama alargun gelditu zen zazpi umerekin; ez zuen pagarik inondik jasotzen. Laborantza lanak egitera joaten zen eta bildutakoaren zati bat ematen zioten. Behi bat, zerri bat eta oilo batzuk bazituzten. Dirurik ez zuten ikusten. Anaia bat gerran hil zen.

3. Bestetako janaria

- **Erref**: IGA-004/003
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:02:11. **Bukatu**: 00:03:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Amak ardi zahar bat erosten zuen herriko bestetarako. Osaba Arantzatik etortzen zen bestetarako eta akordeoia jotzen zuen. Ardia, arroza eta postrea jaten zuten.

4. Txikitatik lan egin behar

- **Erref**: IGA-004/005
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:03:09. **Bukatu**: 00:07:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Gazte-gazte hasi ziren peoi joaten bertze baserrietara. Merienda edo afaria ematen zieten, baina bazkaltzera beti etxera etortzen ziren. Etxean ere txikitatik hasi ziren lanean, behiak jezten eta bazkatzen, iturritik ura ekartzen etab. Anaia zaharrenak Bentan zegoen “Okrera” fabrikan lan egiten zuen eta astean duro bat irabazten zuen (amari lau pezeta ematen zizkion)

5. Arropa moldatu

- **Erref**: IGA-004/006
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:07:04. **Bukatu**: 00:07:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Arropa zaharrak ematen zizkieten eta amak moldatzen zituen.

6. Goibelak ateratzen badira

- **Erref**: IGA-004/007
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:07:43. **Bukatu**: 00:08:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Karrikara ateratzen zirelarik edota amak mandaturen bat egitera bidaltzen zituenean, erraten zien agudo joateko etxera, goibelak ateratzen baziren, azken juizioa iritsiz gero elkarrekin egon behar zutela.

7. Burutea

- **Erref**: IGA-004/008
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:08:29. **Bukatu**: 00:09:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Egur bila joaten zirenean, zamak egin eta buruan ekartzen zituzten. Burutea paratzen zuten. Ura ere buruan eramaten zuten baldetan.

8. Arropa eta oinetakoak

- **Erref**: IGA-004/009
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:09:36. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Bizitza gogorra zen: “gaizki jan eta gaizki jantzi”. Elizara joateko soin bat eta espartin zuriak zituzten, baina euria ari bazuen, etxetik oinutsik joaten ziren eta elizara sartu aurretik paratzen zituzten espartinak. Bazen pastilla zuri bat eta pasta zuri bat espartinak zuritzeko.

9. Familia

- **Erref**: IGA-004/010
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 00:11:10. **Bukatu**: 00:11:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Beti elkarrekin eta kontent zeuden anaia-arrebak eta ama. Ama oso garrantzitsua zen beraientzat.

10. Egurra

- **Erref**: IGA-004/011
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:11:34. **Bukatu**: 00:12:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Egurra non pilatzen zuten azaltzen du.

11. Musara edo buruko zapia

- **Erref**: IGA-004/012
- **Iraupena**: 0:00:18. **Hasi**: 00:12:19. **Bukatu**: 00:12:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Amak musara (buruko zapia) paratzen zuen buruan; zuria izaten zen normalean, tanto beltzekin.

12. Orduko salneurriak

- **Erref**: IGA-004/013
- **Iraupena**: 0:00:27. **Hasi**: 00:12:37. **Bukatu**: 00:13:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Zerri batek 10 edo 20 pezeta balio zituen; ogi handi batek, berriz, 11 sos.

13. Errespetu handia amari

- **Erref**: IGA-004/014
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:13:04. **Bukatu**: 00:15:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Errespetu handia zioten amari. Zigortzen zituen.

14. Jolasak

- **Erref**: IGA-004/016
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:18:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Igande arratsaldetan, inguruko neska eta mutilak baserri batean biltzen ziren. Zertan jolasten ziren kontatzen du: haritz handi baten adarrean katea paratzen zuten eta txandaka aritzen ziren (batek bultzatu eta bertzea eseri); kukumikordaka, “al corro la patata”, ttabatan (tortolosetan), etab. Tortolosetan aritzen zirenean zer erraten zuten azaltzen du: “unetas, uniones, naranjas y limones; a dosetas, y las otras también; a tresetas y la cuarta también; y a cuatretas, las cuatro cogeré”.

15. Arre-arre mandoko

- **Erref**: IGA-004/018
- **Iraupena**: 0:00:23. **Hasi**: 00:19:30. **Bukatu**: 00:19:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Haur kanta: “Arre-arre mandoko, bihar Iruñerako, etzi Tolosarako, handik zer ekarriko, kolkoa bete kukuso, horiek norendako? zuretako, zuretako”.

16. Talo-talo txin

- **Erref**: IGA-004/020
- **Iraupena**: 0:00:16. **Hasi**: 00:19:58. **Bukatu**: 00:20:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Haur kanta: “Talo-talo txin, hator etxera Martin, ogi puska handi batekin...”

17. Haurra egizu lo

- **Erref**: IGA-004/021

- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:20:14. **Bukatu**: 00:20:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Haur kanta: “Haurra egizu lo, lo , lo, emanen dizut bi goxo, orain bat eta bestea gero”.

18. Aldapeko sagarraren adarraren puntan

- **Erref**: IGA-004/022
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:20:35. **Bukatu**: 00:21:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Kanta: “Aldapeko sagarraren adarraren puntan, puntaren puntan, txoria zegoen kantari, txiruliruli, txiruliruli, nork dantzatuko ote du soinutxo hori, tixiruliruli, txirulirula, nork dantzatuko ote du soinutxo hura”.

19. Hortza erortzen zitzaienean

- **Erref**: IGA-004/024
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:22:00. **Bukatu**: 00:22:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Hortza erortzen zitzaienean, amak burko azpian uzteko erraten zien eta hurrengo egunean pezeta bat topatuko zutela

20. Errege eguna. Opariak

- **Erref**: IGA-004/025
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:22:56. **Bukatu**: 00:25:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Errege eguna iritsi aurretik, zelatan egoten ziren ea ama karrikara joaten zen erosketak egitera. Opariak bi soseko olata (erdian marra bat zuena) eta asto pastilla (txokolate pastilla) izaten ohi ziren; batzuetan karamelu bat, laranja bat edota galleta batzuk ere oparitzen zizkieten. Amak erregeak gauez mandoekin etorriko zirela erraten zien. Oinetakoak, garbi-garbiak, leihoan paratzen zituzten

21. Senda-senda mina

- **Erref**: IGA-004/026
- **Iraupena**: 0:00:17. **Hasi**: 00:25:26. **Bukatu**: 00:25:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
“Senda-senda mina, anbutx urdina, non duk hire mina?”.

22. Miserikordia Etxea eta ospitalea

- **Erref**: IGA-004/027
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:25:43. **Bukatu**: 00:28:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Haurra zela, osasun txarra zuen eta Don Matias apezak Miserikordia Etxera eraman nahi zuen, baina bere amak ezetz erran zion. Haurra ezin zuela mantendu eta ospitalera eraman behar zutela erraten zion amari; amak, berriz,“ospitalea, alajainkoa, kanposantuaren aitzineko etxea” zela erantzuten zion.

23. Maistrak jaten ematen zion

- **Erref**: IGA-004/028
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:28:32. **Bukatu**: 00:29:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Eskolara joaten zenean, maistrak bere etxera eramaten zuen eta bazkaltzen ematen zion. Ilunabarretan ere ogitarteko ederra ematen zion etxean afaltzeko; amarekin partitzen zuen.

24. Goserik ez

- **Erref**: IGA-004/029
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:29:15. **Bukatu**: 00:30:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Baserri batera peoi joaten zenean, opil txiki bat eta sardin zahar bat ematen zizikioten merendatzeko; berak erdia gordetzen zuen eta amari eramaten zion. Dena dela, ez zuten goserik izan, esnea, opilak eta eltzaria beti izaten baitzituzten. Sobratzen ziren opilak zerratu eta esnean egosten zituzten. Bertzela, esnea eta arto irinarekin ahia egiten ohi zuten.

25. Zotz egiteko

- **Erref**: IGA-004/031
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:31:00. **Bukatu**: 00:31:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Zotz egiteko: “Txirristi mirristi reina pla olio zopa kikili salda urun plerun klik”

26. Sorginak 1

- **Erref**: IGA-004/033
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:32:02. **Bukatu**: 00:34:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Igantzin sorginak baziren; atso zahar batzuk ziren. Madalen izenekoak amari aza eta ilarrak ekarri zizkion eta, jan ondoren, ama gaizkitu zen: “sorginak eman zizkidan” erraten zuen. Madalenek pikuak eskaintzen bazizkien, ez hartzeko erraten zien amak eta behatzekin gurutzea egiteko. Zakurren edo katuen forman ateratzen omen zela erraten zuten; bere anaia lanera joaten zenean izutzen zen eta Madalen txakur forman ateratzen zitzaiola pentsatzen zuenez, jotzen saiatzen zen, baina ez zuen asmatzen. Madalen gauez aritzen zen arropa garbitzen eta mutil koadrila batek jo zuen. Madalenen eskaileretatik erori zela erraten zuen.

27. Sorginak 2

- **Erref**: IGA-004/035
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:34:19. **Bukatu**: 00:36:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Apezak proba egin zuen Madalen sorgina zen jakiteko: elizara joatean liburua zabalik utziz gero, sorginek ezin zuten elizatik atera. Madalen liburua ixtean atera zen elizatik. Madalen hilzorian zela, apeza bere etxera joan eta “gaizto horiek nori pasatu behar zizkion” galdetu zionean, “etxeko oilarrari” erantzun zion. Baina apezak erran zion bera baino “fuerteago” zen bertze bati eman behar zizkiola eta migari (behi gazteari) emateko. Baietz erran zion eta oilarra, behi mia eta Madalen hil ziren. Sorginek hori egin behar omen dute ez sufritzeko hilzorian daudenean. Garbereko etxekoak ziren Madalen eta bere ahizpa.

28. Sorginak 3

- **Erref**: IGA-004/037
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:38:17. **Bukatu**: 00:39:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Sorginak jotzeko haien itzala jo behar da. Sorginari joz gero eskapatzen ziren. Katu forman ateratzen ziren sorginek atakatzen zuten.

29. Sorginak 4

- **Erref**: IGA-004/039
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:39:51. **Bukatu**: 00:40:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Zerbait arraro sumatzen zutenean zer erraten zuten: “ona bahaiz, hator, ager hadi, eta gaiztoa baldin bahaiz, alda hadi”. Leku batetik bertzera joateko, berriz, erraten zen: “goibel guztien azpitik eta lar guztien gainetik”.

30. Sorginak 5

- **Erref**: IGA-004/040
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:40:31. **Bukatu**: 00:41:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Sorginek larretan arku batzuk egiten zituzten gauez, eta jende arrunta handik pasatzen bazen “pintxatuta” gelditzen zen. Amak ez pasatzeko erraten zien.

31. Sorginak 6

- **Erref**: IGA-004/041
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:41:40. **Bukatu**: 00:43:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Bi lagun kontrabandoan ari zirela, deskantsatzeko gelditu ziren eta batek bele bat ikusten zuen bueltaka haien gainean. Belea beste gizonaren ahotik sartu omen zen, sorgina zelako.

32. Sorginak 7

- **Erref**: IGA-004/042
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:43:18. **Bukatu**: 00:45:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Zugarramurdin sorginak biltzen zirela erraten zuten. Sorginek akelarreak eta beste gaiztakeriak arratseko hamabitan egiten omen zituzten.

33. Sorginak 8

- **Erref**: IGA-004/043
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:45:44. **Bukatu**: 00:47:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Behatzekin gurutzea egiten zuten (lodia ondoko beste bien artean sartuta) Garberetik pasatzen ziren guztietan. Geroago etxe horretara lan egitera joan zen, baina beldurrez izaten zen eta behatzekin gurutzea eginda lan egiten zuen. Gizonei ez zieten sorginak erraten, beste izen bat zuten, baina ez da gogoratzen.

34. Sorginak 9

- **Erref**: IGA-004/044
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:47:49. **Bukatu**: 00:48:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Oilarrak gauez kukurruku egiten bazuen, txarra zen (sorginak inguruan zirela edo erran nahi zuen). Gatz pixka bat hartu eta sutara botatzen zuten orduan.

35. Sorginak 10

- **Erref**: IGA-004/046
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:48:37. **Bukatu**: 00:49:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Elorri zuriarekin gurutzeak egin, bedeinkatu eta alorretan paratzen zituzten; usteltzen baziren, sorginak ez zirela etorriko erran nahi zuen. Ateetan gurutze zuriak paratzen zituzten, etxeak sorgin eta gaiztoetatik babesteko.

36. Sorginak 11

- **Erref**: IGA-004/048
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:49:59. **Bukatu**: 00:51:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Sorginengandik nola babestu: otoitz eginda, erramu zuria bedeinkatuta eta San Juan egunean bedeinkatutako loreekin. Landak ere bedeinkatzen ziren.

37. Sorginak 12

- **Erref**: IGA-004/050
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:52:00. **Bukatu**: 00:52:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Argatan neska ederra omen zen eta suilarekin errekara ur eske joaten zen. Egun batean, tximinitik suila erori zen eta zera entzun zuten: “zuentzat Argatako suila eta Argatako neska ederra guretzat”; eta ez zen gehiago agertu.

38. Lamiak 1

- **Erref**: IGA-004/051
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:52:40. **Bukatu**: 00:54:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lami zuloan neska ederrak (beltzaran eta horaila) ateratzen zirela erraten zen. Urrezko orrazi batekin ilea orrazten aritzen omen ziren. Sorgina eta lamia ez dira gauza bera, lamiek ez dute gaizkirik egiten, baina sorginek bai.

39. Lamiak 2

- **Erref**: IGA-004/052
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:54:21. **Bukatu**: 00:55:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lamiak jendea bezala omen ziren. Jendea ikusten zutenean, gordetzen ziren.

40. Lamiak 3

- **Erref**: IGA-004/054
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:56:00. **Bukatu**: 00:56:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lamiek urrezko gauza hagitz politak egiten zituztela erraten zen. Dena urrezkoa zuten.

41. Lamiak 4

- **Erref**: IGA-004/056
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:57:00. **Bukatu**: 00:57:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Jendea sumatuta, lamiak izkutatu ziren, baina batek orrazia ahaztuta utzi zuen.

42. Lamiak 5

- **Erref**: IGA-004/058
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:58:00. **Bukatu**: 00:59:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lamia bat haurdun zela-eta, emaginaren bila joan ziren. Emaginari urrezko kinke bat eman zioten ordainetan eta gibelara ez begiratzeko, beti aitzinera begiratzeko erran zioten, besteal kinkea kenduko ziotela; emagina, izututa, gibelera begiratu zuen eta lamiek kinkearen erdia kendu zioten. Beti ikaratuta izaten ziren eta bide luzeagoetatik joaten ziren lamiak eta sorginak zeuden tokietatik ez pasatzeko.r

43. Lamiak 6

- **Erref**: IGA-004/060
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 01:00:00. **Bukatu**: 01:01:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Artzain bati lamia agertu zitzaion eta lagunak egin ziren. Artzainak bildots bat eman zion jateko, ardiak pisu handiegia zuelako. Artzainaren makilak botereak zituela uste du.

44. Lamiak 7

- **Erref**: IGA-004/062
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 01:02:00. **Bukatu**: 01:02:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Haur bat sehaskatik lapurtu omen zuten sorginek eta bere ordez panpin bat utzi zuten. Maindireak odolez zikindurik gelditu ziren eta sorginek zera erran omen zuten: “haur honen odola zuentzat eta haurra guretzat”.

45. Auzoari paratutako bertsoak

- **Erref**: IGA-005/002
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:00:07. **Bukatu**: 00:01:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Auzoari paratutako bertsoak: “Argiñorgatik gora dago Iñarburu, bertso berri batzuek para behar ttugu...”

46. Zezenen bertsoak. Emazteari bertsoak

- **Erref**: IGA-005/004
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:02:07. **Bukatu**: 00:04:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Aitatxik bertsoak paratzen zituen. Lesakako zezenen bertsoak. Emaztearei paratutako bertsoak.

47. Extremadurako bertsoak

- **Erref**: IGA-005/006
- **Iraupena**: 0:04:03. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:09:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Aitatxik Extremaduran gertatutako istorio bat kontatzen du bertsotan: “Deklaratzera noa kasu bat, penagarrizko kasua, Espainiako herri batean, Extremaduran pasia...”

48. Pregoi eguna. Tobera jo

- **Erref**: IGA-005/008
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:09:36. **Bukatu**: 00:11:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Pregoi egunean, apezak pulpitotik ezkontzaren berri ematen zuen (ezkongaien izenak, eguna, ordua etab.) eta oztoporik bazen galdetzen zuen. Auzoko neskek burnizko bi palanka apaintzen zituzten (kolorezko paperekin eta begiztekin). Arratsean, mutilak akordeoilariarekin toberak jotzera joaten ziren etxe atarira. “San Martin de la monja, monja de San Martin, tobera jo dezagun Birjina Amarekin...” kantatzen zuten eta, ondoren, burniekin zarata egiten zuten. Etxe barrenera hiruzpalau aldiz sartzen ziren eta kafea eta kopak hartzen zituzten. Dantzan ere aritzen ziren.

49. Urteberritan eskean aritzen ziren kantari

- **Erref**: IGA-005/009
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:11:52. **Bukatu**: 00:14:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Urteberritan eskean ibiltzen ziren kantari: “Dios te salve, ongi etorri, gabon Jainkoak digula, legearekin kunpli dezagun urte berriaren sarrera”. Gero, hainbat bertso kantatzen zituzten: “Horra hor goian izarra, errekaldian lizarra, etxe hontako nagusi jaunak urre gorrizko bizarra”. Etxean inor ez bazen: “Goazen, goazen hemendik, hemen ez zegok dirurik...”. Bertze bertso bat: “Eman behar baduzu, emazu, bestela ezetz esazu, hotzak hiltzera ate ondora amak ez gaitu bidaldu”. Bertze bat: “Esperantza non zara, ez zara inon ageri, mundu guztia ezkondu da ta zu zertako egin ez zara”. Bertzeak bertze, arrautzak eta dirua ematen zizkieten etxeetan.

50. Inauteak

- **Erref**: IGA-005/010
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:14:10. **Bukatu**: 00:14:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Inautetan biltzen zutena fondan prestatu eta arratsaldean plazan zeudenei ateratzen zieten. Bertzeak bertze, tortillak, ardoa, galletak eta ardo gozoa.

51. Behobia eta Donibane Lohitzunera lanera

- **Erref**: IGA-005/011

- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:14:57. **Bukatu**: 00:17:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Bere lagun batzuek erosi zuten Igantziko lehenengo kotxea: TSR8 bat. Bere gizona Frantzian aritzen zen eta bera, berriz, Behobiako fonda batean. Haurrak amarekin uzten zituen lanera joateko. Mobiletean joaten ziren; gero motorra erosi zuten. Senarrak Behobian uzten zuen eta bera Donibane Lohitzunera jarraitzen zuen. Guardia zibil askori ematen zien gosaria fonda hartan.

52. Ezkontza

- **Erref**: IGA-005/013
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:17:23. **Bukatu**: 00:19:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Berak soin beltza egin zuen, orduan ez baitzen zuririk eramaten. Gainean beroki granatea eta mantelin beltza buruan. Santanderretik soldadu (arrantxero lana egiten zuen) etorritako batekin ezkondu zen. Herriko fondan egin zuten ezkontza eta osabak akordeoia jo zuen. Eztei-bidaia Bilbora eta Santander aldera egin zuten; hamabortz egun pasatu zituzten. Hiru seme-alaba izan dituzte.

53. Arreoa

- **Erref**: IGA-005/014
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:19:59. **Bukatu**: 00:20:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Baserri handiko neskek, arreoa eramaten zuten: maindireak, toallak, mahai-zapiak etab.

54. Erremedioak 1

- **Erref**: IGA-005/016
- **Iraupena**: 0:05:36. **Hasi**: 00:22:54. **Bukatu**: 00:28:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Katarroarentzat, berbena-belarrarekin enplastuak egiten zituzten. Esate baterako, sinusitisarentzat, berbena-belar eta baso-belar xehatuta, olio eta baratxuriarekin tortilla egiten zuten (arrautzaren zuringoarekin bakarrik) eta oihal batean sartzen zuten. Kopetan edo bularrean paratzen zuten. Ogi papurrak, esnea eta ardoarekin ere bertze enplastu bat egiten zuten. Katarroarendako eta pikor edo koskorrak ontzeko ere balio zuen. Tipula zanpatuta olio pixka batekin berotu eta pikorra edo koskorra zegoen tokian paratzen zuten; honek ere ontzen zituen. Erredurendako ukendua: zartagin batean olioa paratu eta bertan erretxina, erleen argizaria eta xaboia urtu;

bendak edo gasak bertan igurtzi eta uretan pasatzen dira, gero kutxa batean gorde ahal izateko. Basmo-belarra ere botatzen dio ukendu horri eta bote batean gordetzen du; zaurientzat oso ona omen da. Berbena ere botatzen ahal zaio.

55. Erremedioak 2

- **Erref**: IGA-005/018
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:28:34. **Bukatu**: 00:30:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Kakeria mozteko, botil batean ura, limoi zukua, gatza eta azukrea nahastu eta hartatik edan (medikuak errana). Dena dela, bere lengusinak belar luze bat erabiltzen du.

56. Erremedioak 3

- **Erref**: IGA-005/019
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:30:00. **Bukatu**: 00:31:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Hainbat belar klase aipatzen ditu; nolakoak diren eta nola hartu: pixa-belarra (giltzurrinak garbitzeko hagitz ona, egosita kamamila bezala hartzen da), berbena (barrena garbitzeko, egosita hartu), almorranak (odoluzkiak) kentzeko belarra,

57. Erremedioak 4

- **Erref**: IGA-005/021
- **Iraupena**: 0:04:33. **Hasi**: 00:31:54. **Bukatu**: 00:36:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Suspel-belarrak suspelak (ospelak) kentzen ditu (gainean paratuta). Belarriko minarendako bada bertze belar mota bat (zanpatu eta haren ura belarrian bota). Azeri-buztana hezurretako eta hanketako minarendako erabiltzen da (egosi eta ur horretan hankak sartu). Kamamila tripako mina eta begitxindorra kentzeko erabiltzen da. Begitxindorrentzat basmo-belarra ere ona da. Txindorrak eta mingaineko legarrak kentzeko, batzuek giltza bat pasatzen dute; berak koilara baten giderrarekin igurzten du mingaina (burnizkoa izan behar du). Lehen, laratza erabiltzen zuten.

58. Erremedioak 5

- **Erref**: IGA-005/023
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:36:31. **Bukatu**: 00:37:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Tripako mina kamamila hartuta pasatzen ez bada, ura irakiten paratu, esku bat gatz bota, trapu edo toalla bat han busti eta tripan paratu.

59. Erremedioak 6

- **Erref**: IGA-005/025
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:37:41. **Bukatu**: 00:40:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Kalitxendako (garatxo) bada belar berezi bat, mozterakoan zorne hori bat a teratzen duena. Tropesia zutenean (tripa haizatzen zitzaienean) Lesakara joaten ziren: han bedeinkatu eta bederatzi egunez hartzen zuten ur eta galleta bedeinkatuak, behatz batean soka bat paratzen zuten hiru korapilorekin eta, bederatzi egunak pasatu ondoren, sutan erretzen zuten. San Estropio santua da.

60. Erremedioak 7

- **Erref**: IGA-005/026
- **Iraupena**: 0:00:28. **Hasi**: 00:40:42. **Bukatu**: 00:41:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Hernien gainetik olioa pasatzen zuten.

61. Suge batek ausiki egin zion

- **Erref**: IGA-005/028
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:41:22. **Bukatu**: 00:44:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Hilzorian izan zen suge batek eskuan ausiki egin zionean. Aurrenekoz, gerrikoarekin besoa estutu eta Lesakako medikuarengana eraman zuten; hark ireki eta beltza atera zion, baina ez zuen pozoiaren kontrako botikarik eta ospitalera bidali zuen.

62. Erremedioak 8

- **Erref**: IGA-005/029
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:44:18. **Bukatu**: 00:45:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Gangarabilak (ahoa puslaz betetzen zen eta eztarria potokoz) zeinatzen ziren gatzarekin: “gangabillak dire bedetzi, bedetzi zortzi, zortzi zazpi, zazpi sei, sei bost bost lau, lau hiru, hiru bi, bi bat, nire gangaillak laster sun zirt zart”. Hiru bider egiten zen eta gatza hirutan botatzen zen

63. Piedadeko ermita

- **Erref**: IGA-005/031
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:45:30. **Bukatu**: 00:47:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Piedadeko ermita lehen handiagoa zen. Han bizi ziren eta ezkilak jotzen zituzten (goiz, eguerdi eta arratsean). Kanposantua handitzeko, ondoko etxea saldu eta harriak eraman zituzten.

64. Arantzako serora eta ekaitza

- **Erref**: IGA-005/032
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:47:21. **Bukatu**: 00:48:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Lehen, denbora itsusia heldu zelarik, ezkilak jotzen zituzten. Arantzan, apeza joana zen eta serorak “guarda pan, guarda vino, guarda cebolla, harri guztiak cebolla, ekaitza ekaitza cebolla”.

65. Sinesmenak 1. Sua, ogia eta nabala

- **Erref**: IGA-005/034
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:48:55. **Bukatu**: 00:50:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Haurrei, sua zirikatzen ibiltzen zirenean, ohatzean pixa eginen zutela erraten zieten. Eskaileren bueltan kandela bat paratzen zuten gurasoek, haurrek ohean pixarik ez egiteko. Ogia hasi aurretik, gurutzea egin eta musu ematen zioten. Nabala zutik gelditzen bada, zorte txarra ekartzen du. Ogia ezin zen buruz beheiti izan, beti buelta ematen zioten bizkarraz goiti paratzeko. Ogia lurrera erortzen bazen, musu ematen zioten.

66. Sinesmenak 2. Haurdunaldia

- **Erref**: IGA-005/036
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:53:00. **Bukatu**: 00:53:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Emakumearen aurpegia ikusita jakin daiteke haurdun dagoen. Haurra mutila edo neska izanen den jakiteko, sabelaren formari begiratzen zaio.

67. Sinesmenak 3. Txukuna kentzeko

- **Erref**: IGA-005/037
- **Iraupena**: 0:00:26. **Hasi**: 00:53:35. **Bukatu**: 00:54:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Txukuna (zotina) kentzeko, lepoari (arroparena) bueltak eman, izutu edota ur pixka bat edan behar da.

68. Sinesmenak 4. Gatz anitz

- **Erref**: IGA-005/039
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:54:17. **Bukatu**: 00:54:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Emakume batek gatz anitz botatzen badio janariari, ezkontzeko gogoa duela erran nahi du.

69. Sinesmenak 5. Zakurren ulua

- **Erref**: IGA-005/041
- **Iraupena**: 0:00:12. **Hasi**: 00:55:15. **Bukatu**: 00:55:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Zakurrak gauez ulu egitean, familian zerbait txarra gertatuko zela uste zuten.

70. Sinesmenak 6. Eguraldia iragarri

- **Erref**: IGA-005/043
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:55:59. **Bukatu**: 00:56:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:
Eguraldia nola iragartzen zuten. Arrats gorri, eguraldia eta goiz gorri, arrats zuri. Izar anitz baldin badira, eguraldi ona. Ardiak menditik jaisten baldin badira, denbora txarra heldu da. Armiarmak eguraldi txarrarekin ateratzen dira, eguraldi aldaketetan. Zizare handiak ekaitzekin ateratzen dira.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-17

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com